

Balenciaga Elkarrizketa baten Sotiltasunak

Prentsa-txostena

B

Balenciaga
Elkarriketa baten Sotiltasunak

CRISTÓBAL BALENCIAGA MUSEOA

Erakusketa
2025.05.23 — 2026.01.11

Demna. Couture 50 – 17 modeloa

Laranja koloreko artilezko gabardina-trajea. Lepo luzea du, eta sorbaldak agerian.

Lepoaren muturrek nabarmendu egiten dute erorkera. Jantziaren mahukak, aurrealdean, mihizatuta daude, alboko josturarekin lerroan, eta bizkarraldea pieza bakarrekoa da



Elkarrizketa baten Sotiltasunak Balenciaga etxeak museo-ingurune batean egiten duen lehen erakusketa da. Ondarearen Europako Jardunaldien esparruan sortu zen, eta hasiera batean Keringeko egoitzan aurkeztu zen, Parisko Laennec Ospitale historikoan. Orain, Cristóbal Balenciagaren jaioterrira dator erakusketa, haren ondareari eskainitako museora.

Erakusketak Cristóbal Balenciagaren eta Demnaren sorkarien aukera bat biltzen du: moda-etxearen sortzailea da lehena, eta markaren azken sormen-zuzendaria bestea. Sorkuntza-lan horiek arte-objektu gisa aurkezten dira, lan bakoitzaren xehetasunak isolatzen dituen eszenografia batean. Ondorioz, zehatz-mehatz azter daitezke hala estetika nola teknika, Etxearen kode ikonikoak biak ala biak.

Hala eskaintzen dira etxeak azkenaldian egindako look bereizgarrienetako batzuk, mahuka, lepo eta kaputxen berrinterpretazioan oinarrituak. Bisitariaren begia xehetasunean jartzen duten paramentu leihodun batzuen barruan erakusten dira. Ehun-patroi markoztatuak, tolesak, begiztak eta Cocoon silueta batzuk, bizkarra luzatu eta diseinuen konplexutasuna eta originaltasuna nabarmentzen dutenak.

Erakusgai dauden lanak Balenciaga etxearen artxibo handikoak dira. Cristóbalen lehen lanetatik hasita, prêt-à-portereko eta goi-mailako joskintzako bilduma berrienak ere hartzen ditu barnean. Museoaren bildumako obra bakar bat ere badago, bi erakundeen arteko elkarrizketaren irudi sinbolikoa.

Elkarrizketa baten Sotiltasunak Cristóbal Balenciaga Museora ekarririk, Getariako diseinatzaileak moda garaikidean izan duen eragin iraunkorra ohoratzeke konpromisoa adierazten du etxeak, haren ekarpen berritzaileei gorazarre eginez eta haren ondarearekiko lotura azpimarratuz.

Cristóbal Balenciaga. 1967ko negua - 86 modeloa
Gaueko «Chou» kapa, gazar beltzean drapeatua, eta soileko luze zuzena,
zeta beltzeko cadyz egina



Balenciaga

Elkarrizketa baten Sotiltasunak

Elkarrizketa baten Sotiltasunak erakusketak sei gai biltzen dituen erakusketa-diskurtso bat garatuko du 2025eko maiatzaren 23tik 2026ko urtarrilaren 11ra bitarte. Cristóbal Balenciagaren eta Demnaren 31 pieza aurkeztuko ditu, iraganaren eta orainaren arteko solas arin eta etengabea. Hala, Balenciaga Etxearen bikaintasun tekniko iraunkorraren eta sormen aberatsaren ikuspegi paregabea eskainiko die bisitariei.

Erakusketa honi esker, zenbait elkarreragin aurkitu ahal izango dira —batzuetan agerikoak bestetan ustekabekoak— Balenciagaren herentzia eratu duten sormen-ildoen artean. Hala eskaintzen dira etxeak azkenaldian egindako look bereizgarrienetako batzuk, mahuka, lepo eta kaputxen berrinterpretazioan oinarrituak.

Sorkuntza-lanak arte-objektu gisa aurkezten dira, lan bakoitzaren xehetasunak isolatzen dituen eszenografia batean. Ehun-patroi markoztatuak, tolesak, begiztak eta Cocoon silueta batzuk, bizkarra luzatu eta diseinuen konplexutasuna eta originaltasuna nabarmentzen dutenak.

Beltzeko piezen aukera monokromatiko batek —Balenciagarentzat garrantzi eta esanahi berezia baitu kolore horrek—, parpailan, gazarrean, ekoizpen jasangarriko neoprenoan edo belusean aplikatuta, argi erakusten du jarraipena eman zaiola etxearen sortzaileak hasitako materialen esplorazioari.

Erakusketa Modaren iraganaren, orainaren eta etorkizunaren arteko harmonia paregabea aurkitzeko gonbita da. Artxiboaren eta ondarezko modaren ulermena, sorkuntza berrirako oinarri eta inspirazio gisa.

Lepoa: garondorako enkoadraketa bat

Lepoak gorputzaren eta aurpegiaren arteko bereizketa nabarmentzen edo lausotzen du. Siluetaren goiko muga den aldetik, erabakigarria da konjuntoan eta itxuran. Aldi berean, jantziaren estiloa indartzen duen apaingarri bat da: lepo garbi, lepo armatu edo bolumen handiko lepo baten inpresioak luze dirau.

Balenciagaren kasuan, lepoak oso ezaugarri bereziak ditu: bizkarrerantz lerratu eta lepotik aldentzen da, silueta luzatzeko. Altxa daiteke, aurpegi bat ezkutatu edo erakusteko; bolumen handikoa eta inguratzailea izan daiteke, edo marko nabarmen edo lauso baten ezaugarriak ekarri.

Etengabeko esperimentazio hori trebetasun tekniko handi baten emaitza da, eta Demna berriro heldu dio. Diseinatzaileak Etxearen legatuan oinarrituz lantzen ditu lepoak, eta halako erretiro eta umiltasun ideia batetik abiatzen da, niaren eta bestearen arteko distantzia batetik. Lepoak nabarmen goratzen dira, eta, haiekin batera, baita ziurrenik espiritua ere. Hala, anonimotasunaren esperientzia garaikide eta kontzeptuala proposatzen digu.



© Mark Borthwick

Demna
Couture 50 – 53 modelo
Zeta beltzeko failaz egindako kapa. Hegala zabal eta zimurtuak aurpegia biltzen duen lepoa osatzen du. Papar-hegalean poltsikoak ditu atzera-puntadekin, kurtso bikoitzeko kremaileta eta presioz jarritako botoiak hegalean

Hiru laurdeneko mahuka: perfekzio obsesiboa

Hasiera-hasieratik, Cristóbal Balenciagak arreta berezia jarri zien mahukei. Haren obsesio berezia bihurtu ziren. Mahukak silueta egituratzen eta orekatzen du: luzera, zabalera, hozkaren altuera, forma zuzena edo kurbaduna, sorbaldarekiko zer posizio duen eta ukabilaren errematea zein den... Balenciagak ez dio inoiz utzi parametro horiek berritzeari eta haiekin esperimentatzeari.

Harmonia perfektua aurkitzeak trebetasun tekniko handia eskatzen du, eta Cristóbal Balenciagak bere tailerretako lanaren zorrotasunaren eta zehaztasunaren bidez lortzen zuen hori. Mahuka baten kalitateak argi erakusten du goi-mailako joskintza-etxe baten egiten jakite bikaina eta, Balenciagaren kasuan, haren perfekzionismoaren froga da.

Mahukak, Balenciagan, aldaera ugari ahalbidetzen ditu, eta Demnarentzat ere funtsezko elementua izan da lehen bildumetatik. Haren estetika berritzaileak modu berri batean lantzen du espazioa, eta, aldi berean, Etxearen herentzia indartzen du, iragana eta etorkizuna uztartzen baititu, bai exekuzio birtuosoan bai sormen aplikatuan.



© Tom Kublin

Cristóbal Balenciaga, 1961
Artilezko berokia, kutxa-lepoarekin eta hozka eroriarekin. Josturak atzera-puntada bikoitz batzuekin nabarmendu dira, berokia zein jostura gutxiz egina den nabarmentzeko

Hourglass gerria: gizarte-sinboloa

Cristobal Balenciagaren gerriaren dialektikak aldaketa nabarmenak ekarri zituen jantziaren mozketara orokorrean eta erdialdean. Gerriari erreparatzea, hura nabarmentzeko nahiz ezabatzeko, eta siluetari zer esanahi ematen diogun, hori beti izan da gai sozial bat: bai Cristóbalek bai Demnak gure gizartearen metamorfosiari behatzen diete, eta, beren jantzien bitartez, haien gainean dihardute.

40ko hamarkadaren hasieran, aldaka handituak zituzten jantzi entallatuak sortu zituen Balenciagak; lehiakideek diseinu hori berenganatu zuten ondoren. 50eko hamarkadan, Cocoon sortu zuen, modaren historian kontrapuntu handia markatu zuen linea bat. Hamarkada horren amaieran, 1957an, Cristóbal Balenciagak bere esperimentazioa eboluzionatu zuen, zaku jantziekin: Balenciagaren gerria desagertu egin zen, eta jantziaren maisutasunezko arkitekturaren atzean ezkutatuta geratu zen.

Gaur egun, Demnak gerrialdeko berrikuntza horien inguruan hausnartzen jarraitzen du. Etxearen zuzendari artistiko gisa egin zuen lehen aurkezpenean, 2015ean, kidetasunezko keinu bat egin zuen: Hourglass jantzi birdiseinatu batekin ireki zen (gerri markatua eta kortse esajeratuak). Look enblematikoa izan zen, eta Etxearen zigilu bereizgarria izan da harrezkero. Bere bildumetan aurrera egin ahala, gerriaren lerroa lausotu du apurka diseinatzailerak, erabat ezabatu arte. Horrela, beste behin ere, gabezia horrek definitutako silueta batzuk sortu ditu, orobat pieza ikoniko bihurtu direnak.



© Hiro

Cristóbal Balenciaga, 1967
Traje entallatua artile jaspeztatuan.
Ertz biribilduko hegala dituen, eta botoiz
apaindutako patrika-estalkiak

Cocoon bizkarra: lerroen metamorfosia

40ko hamarkadaren amaieratik, bizkarreko bolumetria berritu zuen Cristóbal Balenciagak. Blusa-antzekoak edo zabalak, Balenciagaren bizkarraldeak garai hartan beste couturierrek proposatutako silueten antitesia ziren.

Gorputza ehunetik urrun dago, eta inguruan sortzen den jantzi bat irudikatzen du. Erosotasuna eta estetika uztartzen dira, silueta garbi, zirrargarri eta eskultorikoa erakusteko.

Kontrapuntu hori behin eta berriz ageri da Cristóbalen bildumetan, eta nabaria da Demnaren sortze-lanetan ere, tamaina handiko bizkarraldeak berreskuratzen baititu, gure garaiko eskalak eta mozketa-planteamenduak interpretatuz. Cocoon lerroak —lehen letrak C formako silueta marrazten du— leku nabarmena du georgiar diseinatzailearen bildumetan. Ariketa hori gorputzaren bolumenari eta mutazioari buruz egiten ari den ikerketaren oinarria da: jada ez dagoenez anatomikoki zehaztuta, jantziak zalantzan jartzen du haren gizatasuna.



© Camille Vivier

Demna. Couture 53 – 22 modelo
Zezen beltzezko larruzko jaka inguratzailea. Lepo altu bereizgarria forru lodi batez egina dago, eta horrek egitura ematen dio multzoari

Balenciaga kolorea

Balenciagak beltzerako zuen joerak joskinaren haurtzaroan ditu sustraiak, euskal kostaldeko jantzi tradizionaletan. Balenciagaren debozioa eta diskrezioa irudikatzen ditu kolore horrek; apala eta aldi berean luxuzkoa, eta Etxearen eta fundatzailearen historiari berez lotua.

Balenciagan, beltzaren artearen ezaugarria da modelo osoari aplikatzen zaizkiola kolorearen ñabardura sotilak. Beltzak ager ditzakeen bibrazioak eta oihartzunak materialen eta argiaren arteko jolasean hezurmamitzen dira. Azabatxe distiratsuzko brodatuak, belus trinko eta xurgatzaileak, eta zetazko satinen dirdira.

Demnak, Cristóbalék bezala, beltza lehenesten du bere sortze-lanetan. Hala, pribilegiozko estatusa ematen dio kolore horri, etengabe agertu baita Etxeko bildumetan. Beltz sakon eta sentiberatsu hori look osoan erabiltzen da, eta siluetaren diseinua zehatza izatea eskatzen du. Irudi beltzak koadro monokromatiko dotore bihurtzen dira.

Bi diseinatzaileek argi uzten dute ezin hobeki menderatzen dutela kolore hori, bai estetikoki, bai barne hartzen dituen sinboloen espektroan.



© Jet Swan

Demna. Couture 51 – 5 modelo

Hainbat lodieratako neopreno beltzez egindako soinekoa. Itsasteko fasean konpentsatu da aldea, eta horrek leuntasuna eta jariakortasuna ematen dio soinekoari. Kremaileak surf-jantzietan bezala doitzen dira. Neoprenozko botak izterreraino. Poliuretanozko Infinity Face Shield maskara, berniz beltz distiratsuz moldatua

Elkarrizketak: perspektiba denboragabeak

Cristobal Balenciagak eta Demnak hainbat gogoeta kontzeptual partekatzen dituzte. Esate baterako, biek gustuko dituzte eraikuntza arkitektonikoak, gehiegizko bolumenak, eta, jantziaren mugimendutik eta gorputzaren ikusezintasunetik abiatuta, siluetaren lerroak askatzea.

Zaletasun horrek hainbat arrazoi ditu: bakoitzak bere garaia zalantzan jartzea, material berrien erabilera, monokromia abstrakzio gisa, beren garaia den isla izango den silueta bat sortu nahia (Balenciaga bere jantziekin, Demnak bere kirol-lookekin), monje-silueta soilak gure gizarteetako bizimoduaren aurrean; eta mahukaren, lepoaren, gerriaren, beltzaren eta bizkarraren garrantzia.

Beharbada, kidetasun formala baino gehiago, esperimentatzeko eta nagusi diren konbentzioak zalantzan jartzeko gustua dute bi diseinatzaile horiek komun.

Bestalde, bakoitzak bere jatorria du. Espainiako euskal kostaldeko arrantza-herri txikitik —itsasoak, debozioak, beltzak eta parpailak eginkizun garrantzitsua dute Cristóbal Balenciagaren diseinuetan—. Ekialdeko Europako estetikara goaz, bertako tradizioekin eta iragan berriarekin —sobietar blokearen azkena, eta munduaren gainerakora, kultura mendebaldetar eta liberalera irekitzea—.

Haien biografietatik harago, Balenciagak eta Demnak goi-mailako joskintza garaikidea lantzen dute; jantziaren funtsari buruzko hausnarketa bat, ezagutza aurreratuenak izatea eskatzen duena, etengabe berreratzen den silueta bat egin eta desegiteko.

Bost hamarkadako aldearekin, bi diseinatzaile horien estiloek elkarrizketa sakon bati ematen diote bide; batzuetan agerikoa, beste batzuetan sotilagoa, erakutsitako piezak elkarren ondoan jarrita hura hautemateko aukera dugu.

Balenciaga Cristóbal Balenciaga espainiarrak 1917an sortua eta 1937an Parisen finkatua, Balenciaga etxeak iraultza ekarri zuen goi-mailako jostuntzara, forman eta teknikan sartu zituen berrikuntzekin. 2015etik, Demnaren sormenezko zuzendaritzaren pean, luxua birdefinitzen jarraitu du Balenciagak, mugak gainditzen dituzten bilduma batzuen bitartez. Gaur egun, emakumezkoen nahiz gizonezkoen prêt-à-portera, osagarriak eta arte-objektuak biltzen ditu Balenciagak, ezin hobeki uztartuz bere ondare historikoa eta modernitate abangoardistena. Berrikuntza digitalean, materialen garapenean eta erantzukizun sozialean egin dituen ekimen aitzindariak esker, moda garaikidearen abangoardian jarraitzen du markak. 2021ean, Demnak Balenciagaren goi-mailako jostuntzako ondarea berpiztu zuen. Etxearen goi-mailako jostuntzako 50. bildumak —Cristobal Balenciaga 1968an erretiratu zenetik lehena— dotoreziaren eta berrikuntzaren erreferente berria ezarri zuen.

Demna Sukhimin jaio zen, Georgian (garai bateko Sobietar Batasunean), 1981ean, eta 1993an Tiflisen kokatu zen, gerra zibiletik ihesi. 2001ean, Nazioarteko Ekonomiako gradua atera zuen Tiflisko Estatu Unibertsitatean, eta, urte horretan bertan, Alemaniara emigratu zuen. Anberesko Arte Ederren Errege Akademian matrikulaturik, bere bizitza osoan izandako anbizioa ase zuen. Han, ITS Collection of the Year saria irabazi zuen 2004an, eta 2006an Moda Diseinuko masterrean graduatu zen. 2014an bere marka atera zuen, VETEMENTS, eta 2015ean Balenciagaren zuzendari artistiko izendatu zuten. Jantzia oinarritutako filosofia ekarri zion Etxeari, eta bizitza berria eman zion Cristóbal Balenciagaren ondareari.

2021ean, goi-mailako jostuntzako bere lehen bilduma aurkeztu zuen Demnak. Etxeak 1968 ezkerreko egiten zuen lehena zen, M. Balenciagak tailerrak itxi zituenetik. Gutxi lehenago berriz irekitako Balentziaga Couture aretoetan aurkeztu zen bilduma, eta sormenaren askatasun-molde berri bat iragarri zuen, goi-mailako jostuntzaren garrantzia berresten zuena.

Bere ikuspegi berritzaileari esker, sari ugari jaso ditu Demnak; besteak beste, urteko nazioarteko prêt-à-porter diseinatzailearena eta urteko osagarri-diseinatzailearena Fashion Awards sarietan; urteko nazioarteko diseinatzailearena eta emakumezko modaren urteko diseinatzailearena CFDA Fashion Awards sarietan; sormeneko aldaketa-liderraren aitortza British Fashion Council-en eskutik, eta munduko eragin handieneko 100 pertsonaren zerrendako postua Time aldizkarian.

Demna. Negua 2016 –1 modelo

Artilezko Hourglass jaka, zuri-beltzeko oilo-hanka estanpatu txikiarekin. Zeta arinezko krepe zuriko gorputza du, eta gurutzatutako gona, irekidura batekin. Peplum oso nabarmendua, aurrerantz, eta silueta makurtua, gerri argala nabarmentzen duten sorbaldako okerrekin




Cristóbal Balenciaga. Negua 1961 - 102 modelo

Gaueko jantzia, kapa eta soinekoa, kakalardo berde irideszente koloreko failaz egina. Hegal zabal eta zimurra du lepoaren inguruan, soinekoaren eskote brodatua ezkutatuz. Soinekoak lepo zabala du, eta hiru laurdeneko mahukak, brodatuak, urre-koloreko aleekin, ezkata urdin eta arrosekin, strass harri arrosekin eta kristal esmeraldako aleekin



Museoko erakusketa



Cristóbal Balenciaga Museoak Balenciagarekin lankidetzan antolatu du erakusketa hau aurten, Cristóbal Balenciagaren irudia, modaren historiari egin zizkion ekarpenak, haren legatua eta orain arteko eragina ardatz dituen programazio baten testuinguruan.

Hala, museoaren bilduman oinarritutako *Cristóbal Balenciaga: Teknika, Materia eta Forma* erakusketak kontzeptu horiei heltzen die, eta diskurtso horri buru ematen dion *Elkarrizketa baten Sotiltasunak* aldi baterako erakusketarekin lotura izango du espazioan.

Urteko erakusketa-programazioa osatzeko, udazkenean, keinu bat egingo zaio sorkuntza berriari, *Transmissions* programa hezigarriaren eskutik. Moda-diseinuaren nazioarteko eskola ospetsuenetako irakasleak eta ikasleak bilduko dira, Cristóbal Balenciagaren filosofian, teknikan eta testuinguru biografikoan murgiltzeko esperientzia baten jiran.

Inplikaturako ikasleen sortze-lanak erakutsiko dira, azpimarratuz zein garrantzitsua den ondarezko moda ikertzea eta aztertzea diseinatzaile-belaunaldi berri bati teknika eta sormena transmititzeko. Hala, zirkulua osatuko da: Cristóbalen Moda, Ondare bihurtua, museoan gordetzen da orain eta artxibo eta museoaren bildumetan gordetako Ondarea diseinatzaile berriek sortutako Moda bihurtzen da.

Hortaz, Museoak proposatzen duen erakusketa-diskurtsoak zubi-lanak egingo ditu, gordetzen duen ondarearen, sorkuntza berriaren eta egungo gizarte-testuinguruaren artean, zeharkako funtsezko kontzeptu batzuk barne harturik, hala nola jasangarritasuna eta aniztasuna.

Cristóbal Balenciaga Museoa

Cristóbal Balenciaga Museoa 2011. urteko ekainaren 7an zabaldu zituen ateak. Jostunaren jaioterrian dago kokatua, Cristóbal Balenciagaren lehenengo prestakuntza-urteen eta heldutasun profesionalaren oroimenez eta modaren munduari egindako ekarpenak ulertzeko helburuarekin.

Balenciagaren bizitza eta lana, modaren eta diseinuaren historian izan zuen garrantzia eta bere ondarearen garaikidetasuna ezagutzera emateko helburuarekin, bilduma aparta du museoak. Oso bilduma zabala da —5.100 pieza baino gehiago inguru ditu, baina etengabe ari da handitzen, gordailuei eta dohaintzei esker—, eta hedadura formal eta kronologiko handia du —jostunaren modelo zaharrenak daude, esaterako—; bi ezaugarri horiei esker, gaur egun dagoen bildumarik osatu, koherente eta interesgarriena da.

Bildumaren beste balio ezohiko bat piezen jatorria da; izan ere, Balenciagaren nazioarteko bezero handiak XX. mendeko gizarteko pertsonaia aipagarriak izan ziren: Mona Von Bismarck, Rachel L. Mellon, Patricia López Wilshaw, Barbara Hutton, Lilian Baels, Grace Kelly edota Madame Bricard, besteak beste, Artxiboetan dauden modeloak jantzi zituzten.



© Cristóbal Balenciaga Museoa / Manuel Outumuro

Informazioa

Zuriñe Abasolo Izarra
Komunikazio arduraduna

zurine.abasolo@fbalenciaga.com

T +34 943 004 777

M +34 647 410 775

Aldamar Parkea 6
20808 Getaria
T +34 943 008 840
info@cristobalbalenciagamuseoa.com
www.cristobalbalenciagamuseoa.com

B

